2016-2-16

*PRENTSA TXOSTENA*

# ALDAKETAK ESKATZEN DITUGU ESKOLA-JANTOKIEN EREDUAN

EAEko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen agindua ezarri zenetik (2000ko martxoaren 22ko agindua), beronen hainbat atal kritikatu ditugu eta salatu dugu ikastetxeen autonomia murrizten duela enpresa gutxi batzuren esku kontzentratuz zerbitzua.

Sistema honek, besteak beste, ez dio aukerarik ematen ikastetxeari enpresa homologatuen artean aukeratzeko, hornitzaile bakar baten esku geratzen delako lote osoa, konpetentziarako aukera murriztuz. Gipuzkoako ikastetxe guztiak, esaterako, Auzolagun enpresak kudeatzen ditu. Sistema honek, azken finean, larriki kalte egin dio zerbitzuaren kalitateari.

Lehiaren Euskal Agintaritzak merkatua banatzeagatik enpresa hauek zigortu dituen momentu honetan kalitatea txartu eta familia eta gizarteari gainkostua egotziz, iruzurtuak eta babesgabe sentitzen gara: enpresek merkatua banatzen dute zerbitzuaren prezioa aldatuz eta Administrazioak ez ditu babesten ez familien ezta herritarren interesak.

Horregatik:

1. Publikoki salatu nahi dugu Administrazioak sortu duen eskola-jantokien ereduak gure seme-alaben zerbitzuari eta familien poltsikoei kalte egin diela.

2. Kudeaketa eredu honek, kontrol falta argia izan duenak, Lehiaren Euskal Agintaritzak salatu duen iruzurra ahalbidetu du.

3. Esleipendun berriak iruzurra sortu duten berberak izanik, beharrezkoak diren kontrol mekanismo guztiak ezartzea exijitzen dugu, isunak ez dezan eraginik izan zerbitzuaren kalitatean.

4. Era berean, isuna eskola-jantokietan inbertitzea exijitzen dugu.

5. Lehiaren Euskal Agintaritzak inoiz ezarri duen isun garrantzitsuena ikertu dezatela eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari eta eskumenak dituzte gainontzeko erakundeei, enpresa hauek salatzeko aukera aztertuz. EHIGE ere aztertzen ari da zer nolako neurriak har daitezkeen.

Egoera honen aurrean, **jantoki eredu berri bat eskatzen dugu**.

Gaur egungo araudiak ez die erantzuten ez familien ezta ikasleen beharrei, eta negozio bihurtu du gure seme-alaben elikadura. Jantokia eskolako beste hezkuntza-esparru bat bihurtuko duen araudi malguagoa behar dugu.

Ikastetxe bakoitzak bere eredu propioa aukera dezala eta Administrazioak azpiegitura eta baldintza egokiak eman diezazkiola eskatzen dugu.

Hori dela eta, **hauxe eskatzen diogu Administrazioari berehala**:

-Eusko Legebiltzarrak 2014ean eskatutako esperientzia pilotuak erraztu eta sustatu ditzala.

-Datorren ikasturtera begira, ikastetxe bakoitzak aukeratu dezala catering enpresa.

-Gai hauek landuko dituen araudi berri bat osatuko duen Jantoki Batzordea sortu dezala, eragile desberdinen parte-hartzearekin:

*Kudeaketa:*

·Ikastetxe bakoitzari aukera ematea nahi duen kudeaketa-eredua aukeratzeko (autokudeaketa, beste erakunde lokalak, catering, eta abar) nutrizio, elikaduraren kalitate, segurtasun eta garbitasun eskakizun guztiekin, egungo sistemak duen babes instituzional eta ekonomiko berberarekin.

·Catering sistema aukeratzen duten ikastetxeek enpresa aukeratu ahal izatea.

·Sukaldeak ikastetxe guztietan.

*Produktuak eta kalitatea:*

·Sasoiko bertako produktu freskoak eta ekologikoak.

·Bertako ekonomiaren sustapena.

*Hezkuntza-esparrua eta arreta:*

·Jantokia benetako hezkuntza-esparrua izango dela bermatuko duen formakuntza begiraleentzat: ikasleen arreta, gatazken ebazpena, jolasak genero ikuspegiarekin, eta abar.

·Espazioak, ordutegiak, ratioak, ohiko ikaslegoa eta abar berrikusi.

·Jankideen adinera egokitu zerbitzua. Adinen arabera desberdindu menuak, self-service bigarren hezkuntzan, eta abar.

*Hezkuntza-komunitatearen parte-hartze efektiboa:*

·Jantokiko batzordearen autonomia eta kontrol osoa.

·Familien parte-hartzea sustatu zerbitzu osoan.

·Eskola-jantokiaren hezkuntza erabilera (espazioa aprobetxatu ohitura osasuntsuak sustatzeko, ikaslearen autonomia elikaduran, elikadura ohiturak ezartzeko erabili espazioa, osasuna, eta abar).

*2016-2-16*

*DOSSIER DE PRENSA*

**EXIGIMOS CAMBIOS EN EL MODELO DE LOS COMEDORES ESCOLARES**

Desde que se implantó la normativa que regula los comedores escolares de los centros educativos públicos de la CAV (Orden de 22 de marzo de 2000) hemos criticado numerosos aspectos de la misma y hemos denunciado que cierra las puertas a la autonomía de las escuelas y concentra el servicio en pocas empresas.

Un sistema que, entre otras cosas no permite que el centro escolar pueda elegir entre las empresas homologadas, porque los lotes preestablecidos obligan a un único proveedor, anulando toda posibilidad de competencia. Como ejemplo señalar que todos los comedores escolares de centros públicos de Gipuzkoa están obligados a tener como proveedor a Auzolagun. Un sistema, en definitiva, que ha perjudicado seriamente la calidad del servicio.

Ahora que la Autoridad Vasca de la Competencia ha denunciado un reparto del mercado que ha empeorado la calidad del servicio y ha supuesto un sobrecoste para las familias y la sociedad en general, nos sentimos estafados e indefensos: las empresas se reparten el mercado y alteran el precio del servicio y la Administración no protege ni los intereses de las familias ni el interés general.

Por ello:

1. Queremos denunciar públicamente que la Administración ha creado un modelo de comedores escolares para nuestras hijas e hijos que ha perjudicado a la calidad del servicio y al bolsillo de las familias.

2. Este modelo de gestión, con una falta de control continuado, ha posibilitado el fraude denunciado por la Autoridad Vasca de la Competencia.

3. Teniendo en cuenta que las nuevas adjudicatarias son las mismas que han ocasionado dicho fraude, exigimos que establezca todos los mecanismos de control necesarios para que la multa no revierta en la calidad del servicio.

4. Asimismo exigimos que invierta en los comedores escolares el importe de la multa.

5. Solicitamos al Gobierno vasco y a las entidades competentes que investiguen la sanción más importante que ha establecido la Autoridad Vasca de la Competencia, analizando la posibilidad de denunciar a estas empresas. EHIGE está estudiando las medidas que se pueden tomar.

Ante esta situación **exigimos un nuevo modelo de comedores**.

La normativa actual no responde a las necesidades de las familias y el alumnado y ha convertido la alimentación de nuestros hijas e hijos en un negocio. Queremos un nuevo modelo más flexible que considere el comedor como un espacio educativo más del centro.

Solicitamos que cada comunidad escolar pueda elegir su propio modelo y que la Administración le dote de las infraestructuras y las condiciones necesarias para llevarla a cabo.

Por eso **solicitamos a la Administración que de inmediato**:

-Facilite e impulse las experiencias piloto a las que le instó el Parlamento Vasco en 2014.

-Que cada centro pueda elegir empresa de catering de cara al próximo curso.

-La creación de una Comisión de Comedor a lo largo de este curso, en la que participemos diferentes agentes y elabore un nuevo marco normativo que trate temas como los siguientes:

*Gestión:*

·Permitir al centro que elija el sistema por el que quiere gestionar su comedor (autogestión, otros organismos locales, catering, etc.), con todas las exigencias nutricionales, de calidad alimentaria, de seguridad e higiene, y con el mismo apoyo institucional y económico que el sistema actual.

·Que los centros que elijan el sistema de catering también puedan elegir empresa.

·Cocinas en todos los centros.

*Productos y calidad:*

·Introducción de productos locales frescos de cada temporada y ecológicos.

·Promoción de la economía local.

*Espacio educativo y atención:*

·Formación del monitorado en temas que garanticen que el comedor sea realmente un espacio educativo: trato al alumnado, resolución de conflictos, juegos con perspectiva de género…

·Revisar los espacios, los horarios, ratios, alumnado habitual etc.

·Adecuar el servicio a la edad de los comensales: diferenciación de menús según edades, self-service en secundaria, etc.

*Participación efectiva de la comunidad educativa:*

·Autonomía y control completo de la comisión de comedor.

·Fomentar la participación de las familias en todo el servicio.

·Uso educativo del espacio del comedor (aprovechar este espacio para fomentar hábitos saludables, autonomía del alumnado en la alimentación, utilización del espacio para implementar prácticas alimenticias, salud, etc.)